ASMOZ TA JAKITEZ

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

1998 urtarrila/enero/janvier
Nº 75 zenb.

# Berrikuntza garaiak argitalpen jardueran

Eusko Ikaskuntzak bere produkzioaren alderdi kualitatiboak zaindu ditu bereziki, ekoizpen erritmoa jaitsi gabe. Bere liburuak argitaratze koordenada berrietara egokitzeko xedetan, Elkartearen bilduma guztiak zientzia argitalpenerako nazioarteko arauetara egokitu direla azpimarratu behar da, eta obra horietan aurkibide analitikoak, laburpenak, etabar, sartu direla, EI-ren produkzioa garai berrietara egokitzeko eta zientzia komunitateari, behar bezain zorrotz eta praktikoa den materiala eskaintzeko helburuarekin.

| Argit. jarduera 1997 | Kopurua |
|---|---|
| **Monografiak**<br>Antoine d'Abbadie (3) | 3 |
| **Bildumak**<br>Eusko Ikaskuntzaren Kongresuak (1); Erdi Aroko Dokumentu Iturriak (7); Lankidetzan Bilduma (2); Manuel Lekuona Saria (3) | 13 |
| **Sailkako Argitalpenak**<br>Koadernoak (16); Eleria, Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria (1); Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria (3) | 20 |
| **Argitalpen orokorrak**<br>Asmoz ta Jakitez (11); Asmoz ta Jakitez. Argitalpenak (2); Asmoz ta Jakitez. XIV Kongresua (3); Urtez-urte 2. 1996-97 (1) Argitalpenen Katalogoa 1995-97 (1); Memoria 1996 (1) | 19 |
| **OSOTARA** | **55** |

**Bibliografia espezializatuak**
Ildo berean sartzen da, halaber, bibliografia espezializatuak osatzen burutzen ari den lan garrantzitsua, 1996an Eusko Art proiektuarekin abiaturiko ereduari jarraituz.

Dagoeneko hainbat Sailek bilduma bibliografikoak argitaratu dituzte: Antropologia eta Etnografia (itsasoa, mendiko komunitateak Europan); Historiaurrea eta Arkeologia (Erromatar garaiko arkeologia Euskal Herrian); Komunikabideak (komunikabideei buruzko doktore tesiak Euskal Herriko Unibertsitateetan); Historia eta Geografia (gaur egungo historia).

**Lankidetzan**
Bestalde, bildumen katalogoan ere berritasunak gauzatu dira, modu horretara argitalpen eskaintza Elkartearen jarduera-ildo berriei egokitu nahi izan delarik, hala nola Udalekiko eta bestelako erakundeekiko lankidetzari dagokionez. Horren emaitza den "Lankidetzan" sail hasiberriak aurten hedapen handia izatea espero da.

Kopuruaren aldetik begiratuta, "Euskal Herriko Erdi Aroko Dokumentu Iturriak" izenburuko bilduma gailendu da guztien artean azken garaiotan, joan den urtean bereziki Nafarroari buruzko dokumentazioa biltzen duen beste hainbat liburukiz hornitu baita, eta horren argitaratze erritmo azkarra ikusita, ehun aleetara iristea aurrikusten da 2000. urtea baino lehen.

1997an zehar, goiko laukian ageri den bezala, Eusko Ikaskuntzak 55 argitalpen plazaratu ditu osotara.

# El servidor de EI/SEV ha registrado 51.000 consultas en seis meses

Las páginas web de Eusko Ikaskuntza han sido objeto de atención por parte de usuarios de los cinco continentes, tal y como recoge el balance de funcionamiento del servidor que la Sociedad tiene en la red Internet, balance correspondiente al segundo semestre de 1997. Las consultas han sido dirigidas desde, al menos, cuarenta Estados diferentes, alcanzando en total la cifra de 51.000.

Por su importancia, sobresale el dominio "es", con cerca de un 60% del total de entradas. Le siguen en número Estados Unidos, Uruguay, Holanda, Austria, Francia y Argentina. Senegal es el país que cierra la larga lista de puntos geográficos registrados. Existe, además, una elevada cantidad de consultas procedentes de los dominios "edu" y "com", cuyo origen físico se desconoce.

En cuanto a las materias por las que los usuarios se han mostrado interesados, se sitúa en primer lugar el XIV Congreso de Estudios Vascos.



Cabe recordar al respecto que Internet sirvió de canal para la transmisión de las sesiones programadas en cada una de sus tres jornadas y, de hecho, éstas fueron seguidas desde puntos tan dispares como Japón, Eslovenia o Alemania. Igualmente, siguieron las intervenciones por Internet M-Bone desde las universidades de Toronto (Canadá), Oregón y Columbia (EE.UU.), y Jean Monnet de París, así como desde un buen número de instituciones académicas adscritas a la red española Rediris.

Otro apartado informativo que ha tenido un elevado nivel de consultas es el relativo al Master Interactivo de Derecho Ambiental (MIDA), que está siendo cursado por más de veinte alumnos, algunos desde países como México y Uruguay.

El idioma más utilizado en estos seis meses ha sido el castellano (40%), inglés (30%), euskara (20%) y francés (10%).

ASMOZ TA JAKITEZ INTERNET
//suse00.su.ehu.es
Telefónica

## NOUVEAUX MEMBRES

**Eusko Ikaskuntza.** BULLETIN D'INSCRIPTION

Adhérer à Eusko Ikaskuntza c'est la posibilité de rencontrer les meilleurs moyens pour travailler pour notre culture. Remplir le coupon joint et l'envoyer dans un des bureaux de la Société. Nous rentrerons rapidement en contact avec vous.

Nom.................................Prénom.........................
Adresse..............................Code Postal..................
Ville.................................Téléphone....................

**Eusko Ikaskuntza:** FACULTE PLURIDISCIPLINAIRE. 29-31, cours du Comte de Cabarrus. 64100 BAIONA.

**Cotisations:** 200 Frs. pour les membres ordinaires. 50 Frs. pour les membres étudiants.

**Les Sections d'EI-SEV:** anthropologie, arts plastiques, sciences naturelles, sciences économiques, cinématographie, droit, education, folklore, his-toire, langue/littérature, moyens de communication, musique, préhistoire/archéologie, sciences médicales, sciences physiques et mathématiques

Asmoz 75-1 98/1/15 13:20 Página 2



## Conferencias, visitas culturales y cine en las II Jornadas de Arte

**Izenemate**

*orriak Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusietara igorri behar dira ordain agiriaren kopiarekin batera.*

Dedicadas a la revisión de la época renacentista, las II Jornadas de Arte Vasco, ofertan un completo programa a todas aquellas personas interesadas en actualizar sus conocimientos sobre este estilo en Euskal Herria, a través de seis ponencias marco, encargadas a destacados profesores universitarios, y un total de 26 comunicaciones, que permitirán a los asistentes conocer los más recientes trabajos de investigación en este ámbito. En el transcurso de las sesiones, que se desarrollarán en horario de mañana y tarde de los días 12, 13, 14 y 15 de marzo, se presentará y distribuirá, además, un cuaderno monográfico con todos los contenidos expuestos y una bibliografía actualizada sobre el periodo de estudio.

El plazo de matriculación en las Jornadas, cuya carga lectiva podrá utilizarse para la obtención de tres créditos acordados por la Comisión de Doctorado del Departamento de Historia del Arte de la Universidad del País Vasco, está abierto hasta el día 28 de febrero.




Esta segunda edición tendrá varios escenarios: el Palacio Miramar de San Sebastián acogerá las ponencias y comunicaciones; la Casa de Cultura Lugaritz, la proyección de películas incluída en el programa y organizada en colaboración con el Patronato Municipal de Cultura de San Sebastián; y la villa de Oñati, la visita al conjunto renacentista que los participantes efectuarán el día 15 de marzo como cierre de estos encuentros. Los expertos en los que, en esta ocasión, recaen las ponencias son Fernando Marías, José Angel Barrio, Concepción García, Pedro Echeverría, Juan Carrete y Rosa Martín.

## Eusko Ikaskuntza amplía el equipo técnico de la Mediateka

La decidida apuesta de Eusko Ikaskuntza por adaptar su funcionamiento a las nuevas coordenadas tecnológicas, ya reflejada en buena parte de su producción durante los últimos años, queda especialmente patente en una de sus líneas de acción más ambiciosas, la que ha permitido la puesta en marcha de la nueva Mediateka de EI/SEV, cuya institución formal tuvo lugar el pasado mes de octubre y cuya presentación oficial se llevó a cabo en el marco del recién celebrado XIV Congreso *"La Sociedad de la Información"*. La Mediateka nace con el decidido ánimo de rentabilizar socialmente su creación, dado que es el conjunto de la población el destinatario de sus servicios, y de llegar a todos los rincones de la geografía conectada a Internet. No en vano, se propone servir de instrumento para la difusión mundial tanto de la actividad de Eusko Ikaskuntza, como de toda aquella información relativa a la realidad de Euskal Herria que, de especial interés para investigadores y estudiosos, la Sociedad pueda tener en su haber. La Mediateka cuenta con un Consejo Rector responsable de sus proyectos y con un equipo técnico dirigido por Arantza Cuesta, al que este año, a través de la beca convocada el pasado mes de noviembre, se incorpora la socia Idoia Soto, para el desarrollo de tareas informáticas.



*Idoia Soto se incorpora al equipo técnico de la Mediateka, a través de la beca convocada el pasado mes de noviembre.*

Graduada en Bakersfield (California), Idoia Soto es licenciada en Ciencias de la Información por la Universidad del País Vasco y, por su formación complementaria, cuenta con una experiencia de tres años como becaria de los Servicios Informáticos adscritos a la biblioteca del Campus de Bizkaia. En este departamento ha desarrollado, entre otras, tareas como la realización de pantallas DOBIS-LIBIS, y traducción de pantallas de ayuda y de búsqueda para el usuario. Idoia Soto, autora de un CD Rom de la Ikastola Lizeo (Beasain), ha trabajado también en la elaboración de páginas Web para Servicios Informáticos Goierri.

Los proyectos que la Sociedad viene desarrollando en los últimos tiempos y han sido asumidos por la Mediateka son diversos. Se incluye entre ellos la digitalización de los 46 tomos comprendidos por la Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco "Auñamendi", y la construcción de un archivo fotográfico, que ya cuenta con 11.000 imágenes disponibles para su consulta.

## Bi izen berri "Eusko News" prentsa albistegia talderako

Bi kazetari aukeratu ditu Eusko Ikaskuntzak, Akitania-Euskadi-Nafarroa Fondoen laguntzaz, "Eusko News" izenburupean Interneten ipiniko duen prentsa albistegia lantzeko. Iratxe Artaraz Miñón eta Hur Gorostiaga ditugu bere egunean Elkarteak plazaratu zituen beken irabazleak, bakoitza geografia-eremu batetaz arduratuko delarik. Hegoaldeko informazioa bildu eta *site*-an sartu ahal izateko landuko du Iratxe Artarazek, Hur Gorostiagak Iparraldekoarekin lan berbera burutuko duen bitartean.

Euskaldunon Egunkariaren Baionako bulegoko burua da Gorostiaga, bai eta Ipar Euskal Herriko Prentsa Elkarteko lehendakaria 1995etik, eta Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluko kidea ere, prentsako ordezkari gisa. Bestalde, Herri Urrats Iparraldeko Ikastolen Festako zuzendaritzako taldekide dugu Informazio Zientzia ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean burutu zituen kazetari hau.



**Los periodistas**

*Iratxe Artaraz y Hur Gorostiaga realizarán, desde Hegoalde e Iparralde, respectiva - mente, la selección y tratamiento de informa - ciones para la revista de prensa por Internet "Eusko News".*

Bere hedabideetako esperientziari dagokionez, aipa daiteke era berean, Baionako Gure Irratiko eta Donibane Garaziko Irulegi Irratiko emankizunetan azken urteotan izan duen eskuhartzea. Horretaz gain, Edertrack telebistarako bikoizketa enpresan lan egin du, 1997an Associated Press eta EFE informazio agentzietan ordezkapenak egin dituelarik.

**Hegoaldea**

Euskal Herriko Unibertsitatean burutu zituen ere bere Kazetaritzako ikasketak Iratxe Artaraz bazkideak. Arabako Egunkarian idazten du gaur egun eta irratian, RNE-n, aritua da. Udako Euskal Unibertsitateak Iruñean urtero eskaintzen dituen ikastaroetako prentsa bulegoan lan egin du Gasteizen bizi den gazte honek eta zenbait beka izan ditu azken urteotan: EHU-ko Kazetaritza Saileko Erredakzio Elektronikoa Gelakoa 1996 eta 1997an, eta Salamankan bururutiko Lurraldeen garapena eta Ikusentzute Komunikazioari buruzko I. Kongresukoa 1996an.

**Web orria**

Eusko News zerbitzu berriaren web orria lau hizkuntzatan landuko da: euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa, edonork gustokoen zaion hizkuntzan informazioa jasotzeko eta erabiltzeko aukera izan dezan.

Barne egiturako ardatza euskal informazioa izango da, Iparralde, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegotik bildutako albisteez osatuko baita.

Agenda gisa, zenbait atal aurkeztuko dira, kultura, turismo, sukaldaritza, kirol eta beste zenbait gai ere bertan aurkituko direlarik.

Proiektu honetarako aukeraturiko bi kazetariek urtebete batez egingo dute lan, bekaren baldintzen arabera.

## Bekak-1998

**"Angel de Apraiz" ikerketa beka.**

Eusko Ikaskuntzak Angel de Apraiz bere lehen idazkari nagusiaren omenez sortutakoa, Elkarteko bazkideei zuzendutako beka honen helburua Giza Zientzien alorreko ikerketak bultzatzea da.

Dokumentazioa (lanaren memoria eta kurrikuluma) aurkezteko epea 1998ko otsailaren 28ra arte dago irekita, Eusko Ikaskuntzaren Bulego Nagusietara zuzendu behar delarik (egun horretan bertan postetxean ezarritako eskaerak ez dira onartuko). Proposatutako lana urtebetekoa izan beharko da gehienez. Eusko Ikaskuntzak 750.000 pezetako laguntza luzatuko dio lanaren arduradunari. 1998ko deialdiaren ikergaiak honako hauek izanen dira: Historia, Geografia, Hizkuntza, Literatura, Prehistoria eta Arkeologia.

**"Agustin Zumalabe" ikerketa beka.**

Iraupenari eta dirulaguntzaren kopuruari dagokionez, "Angel de Apraiz" bekaren baldintza berberak aurkezten dira, kasu honetan Zuzenbidea, Hezkuntza, Komunikabideak eta Natur Zientziak direlarik 1998ko deialdirako aukeratutako ikergaiak.

Lanaren memoria eta kurrikuluma Eusko Ikaskuntzaren Bulego Nagusietara (Miramar Jauregia. Miraconcha pasealekua, 48. 20007 Donostia) zuzendu beharko dira otsailaren 28a baino lehen.

 La Sociedad de Estudios Vascos fue fundada en 1918 por las Diputaciones de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra

# Antropologia, erlijioa eta sinboloak aztergai EI-ren eskutik



Iruñeak hartuko ditu Eusko Ikaskuntzako Antropologia-Etnografia Sailak erlijioa eta sinboloen inguruan prestatzen ari den jardunaldiak. Ondoko aditu hauek osatzen dute datorren apirilaren 24 eta 25ean burutzekoak diren saio hauen antolaketa taldea: Roldán Jimeno Aranguren, Josetxu Martínez Montoya, Fermín Leizaola eta Kepa Fernández de Larrinoa. Bertan esku hartzeko interesaturik dauden pertsonek urtarrilaren 31ra arte igor ditzakete beren komunikazioen proposamenak. Izenburua eta gehienez jota 80 hitzetako laburpena dira epe horren barne aurkeztu behar direnak. Komunikazioa aukeratua izanez gero, haren testu osoa helarazi beharko zaie antolatzaileei martxoaren 31a baino lehen. Beti ere, Eusko Ikaskuntzaren Nafarroako Bulegora (García Castañón, 2-6. ezk. 31002 Iruñea) bidali behar dira. Bereziki ondoko gaiak ukitzen dituzten azterlanak aurkeztera gonbidatzen ditu ikertzaileak Antropologia-Etnografia Sailak: etnografia eta kultura materiala, antropologia fisikoa eta arkeologia, antropologia soziokulturala, folklorea eta gizarte historia.

# IVème Prix d'EI-SEV et de la Banque Euskadiko Kutxa



Etant donné qu'il est de plus en plus difficile de choisir la personne la plus qualifiée dans la société scientifique, Eusko Ikaskuntza et la Banque Euskadiko Kutxa ont signé une convention pour attribuer un prix au curriculum le plus remarcable du Pays Basque dans le domaine des Humanités et des Sciences Sociales.

Ce prix a été conçu de façon à ce que ce soit une référence dans le monde scientifique. Comme lors des trois éditions précédentes, les recteurs des cinq universités et ainsi que des spécialistes en évaluation scientifique au prestige reconnu seront les membres du jury.

Cette fois encore le prix sera de l'ordre de trois millions de pesetas (cent vingt mille francs). Les fondateurs de ce prix veulent promouvoir la valeur d'excellence dans les méthodes et les résultats parmi les chercheurs.

En 1995, le prix avait été décerné au Docteur Julio Caro Baroja, en 1996 au Professeur Alvaro D'Ors, et en 1997 au Père Villasante.

**Délai de présentation**

Le délai de présentation des candidatures s'achève le 28 février. Ensuite les représentants des Universités (Université Publique de Navarre, Université du Pays Basque, Université de Deusto, Université de Navarre, Université de Pau et des Pays de l'Adour), les représentans du Conseil d'Administration d'Eusko Ikaskuntza et le président de la Société auront la responsabilité de sélectionner le meilleur candidat.

L'oeuvre globale du lauréat devra avoir effectivement contribué au développement scientifique du Pays Basque.

**Candidatures**

Les propositions seront accompagnées du Curriculum Vitae sur imprimé normalisé à demander aux toutes les Bureaux de la Société.

La documentation devra être adressée au Bureau central d'Eusko Ikaskuntza/Société d'Etudes Basques, Palacio Miramar à Sain-Sébastien (Gipuzkoa).

*Beheko irudian Aita Villasante joan zen urteko saria jasotzen.*



# Jakitez programaren bitartez buruturiko hainbat ikerlan liburu batean

Oso material baliotsua eragiten ari dira hainbat disziplinatan Eusko Ikaskuntzak zenbait erakunderekin sinaturiko lan-hitzarmenek. *Lankidetzan* izeneko sailean argitaraturiko lanek ongi isladatzen dituzte elkarlanaren emaitza onak eta horien adibide dugu joan den abenduan "La institucionalización jurídica y política de Vasconia" izenburupean plazaraturiko lanbilduma. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen laguntzarekin prestaturik, Gurutz Jáuregui, Jose Manuel Castells eta Xabier Iriondok EI-ren *Jakitez-Ikerkuntza* programaren barne buruturiko ikerlanek osatzen dute liburua.



Europako estatuen egitura juridiko-politikoan eta haien lurralde antolakuntzan Europako Batasunaren gero eta erakunde-sendotze handiagoak aldaketa garrantzitsuak eragiten ari dela kontuan harturik, egoera berri horretatik erator daitezkeen eta Euskal Herria osatzen duten lurraldeen etorkizuneko erakundetze juridiko eta politikoari legozkiokeen ondorio batzuk aztertzen saiatzen dira autoreak lan honetan.

Lankidetzan saileko laugarren alea dugu oraingoko hau, aurreko hirurak Elkarteak Oñati, Tolosa eta Zegamarekin dituen hitzarmenen bitartez burutu direlarik.

# EI/SEV edita en CD-ROM las actas de todos los Congresos celebrados desde 1918

En la línea de incorporación de nuevos soportes a la actividad editorial y con el objetivo de facilitar la consulta de los investigadores, Eusko Ikaskuntza ha recogido en CD-ROM las actas de todos los congresos de Estudios Vascos celebrados desde su fundación. La edición respeta la presentación de las páginas en su aspecto original, incluídas las imágenes, si bien dispone de un sistema de búsquedas inteligente que permite obtener información relativa a diferentes campos. Las ponencias y comunicaciones del recientemente celebrado XIV Congreso se incorporarán a esta recopilación en una próxima edición.

# Egutegia

## Calendario Agenda

*Días 28, 29 y 30 de enero, en Bilbao*
Symposium. Una ciudad musical

Organizado por Eusko Ikaskuntza en virtud del convenio de colaboración firmado en su día entre la Sociedad y el Ayuntamiento de Bilbao, se celebrará en la capital vizcaína el III Symposium "Bilbao: 700 años de memoria", que dará comienzo el 28 de enero a las 17.00 horas con una ponencia inaugural titulada "Ciudad y música", y será clausurado el día 30, a las 20.00 horas, con un concierto a cargo del Trío Collage, que interpretará varias composiciones de Rafael Castro, Juan Cordero y Gabriel Erkoreka.

Las sesiones se desarrollarán en horario de tarde en la Biblioteca Bidebarrieta y las conferencias versarán sobre: el Patronato Municipal de la Música durante el Antiguo Régimen; la influencia de los músicos bilbaínos en los proyectos de la RSBAP; la vida musical entre 1790 y 1880; la fiesta y su música; orígenes y evolución de la Sociedad Coral y la Orquesta Sinfónica de Bilbao; la ópera vasca; la prensa musical; la edición musical; la creación musical contemporánea; la enseñanza musical; historia de la música moderna en el Gran Bilbao; y artes plásticas y música. Habrá un capítulo de comunicaciones libres, que estarán centradas en los siguientes temas: la enseñanza musical privada en el Bilbao dieciochesco; la Sociedad Filarmónica; el fonógrafo en Bilbao; las canciones de E. Chacón; dos instituciones bilbaínas: la ABAO y la Filarmónica; y el jazz al estilo "New Orleans" en la pintura de I. García Ergüin.

La inscripción en el simposyum deberá efectuarse en las Oficinas de EI/SEV en Bilbao (María Díaz de Haro, 11-1º).

# Nuevas coordenadas para la actividad editora



**José Angel Ormazabal**

*Eusko Ikaskuntzako Argitalpen Saileko idazkari tekni-koa dugu.*

Hace escasas semanas tenía lugar el XIV Congreso de Estudios Vascos, en el que se constataba el fuerte impacto de las nuevas tecnologías de la comunicación. Cada vez son más las instituciones, empresas, centros educativos y usuarios en general, que adquieren herramientas para poder acceder a todo tipo de información y, en este sentido, dos de las conclusiones expuestas a su término merecen una especial reflexión: por una parte, la necesidad de crear contenidos propios acerca de nuestro País; y, por otra, la de difundir éstos a través de la red, para que pueda accederse a la cultura vasca desde cualquier parte del mundo. Trasladadas a la faceta editorial de Eusko Ikaskuntza, las conclusiones coinciden con los objetivos planteados en el seno de la Sociedad desde hace unos años, en virtud de los cuales han ido introduciéndose cambios en todas las publicaciones, como lo testimonia su adaptación a las normas internacionales de edición científica y su posterior almacenamiento informático. Por tanto, EI/SEV tiene hoy ante sí dos retos: la edición electrónica, además de en papel, de sus novedades y la conversión a nuevos soportes de los fondos publicados hasta el momento. Así, se pretende ofertar cada colección en CD-ROM, lo que, en algunos casos, permitirá una mejora del libro original, al poder, por ejemplo, incorporarse material gráfico en color a algunas series cuyas imágenes se imprimieron, por economía de edición, en blanco y negro.

**Base de datos bibliográfica**

Por otra parte, está prevista la creación de una base de datos bibliográfica (BdB), que, colocada en Internet, suministre al usuario, en cuatro idiomas (euskara, castellano, francés e inglés), información relativa a cualquier investigación publicada por Eusko Ikaskuntza. En la misma línea, el catálogo convencional tendrá su versión electrónica en la red y ello también irá unido a un enriquecimiento de las posibilidades informativas sobre el elenco bibliográfico, al poder incluirse además de autores y títulos, los descriptores, resúmenes, etc.

*Argitarapen iharduera nazioarteko araudiei egokitzeko lanei ekin die Elkarteak azken urtean, zientzia komunitateari zuzenduriko zerbitzua hobetu asmoz*

Por lo que respecta a las ideas ya puestas en marcha, cabe recordar que desde junio de 1996, pueden consultarse en la Web de EI/SEV cuestiones relativas a la actividad editorial de la Sociedad, así como breves reseñas de sus colecciones, referencias bibliográficas e índices de los volúmenes que van apareciendo. En los últimos meses, se han ofrecido, además, publicaciones completas. Es el caso de esta hoja informativa "Asmoz ta Jakitez", que desde noviembre del pasado año puede consultarse en pantalla. Por este mismo sistema se realizó la difusión de los boletines confeccionados diariamente durante el XIV Congreso, que continúan disponibles en Internet, al igual que "Asmoz ta Jakitez-Argitalpenak" y que el "Catálogo general de publicaciones, 1995-1997".

La decidida apuesta de Eusko Ikaskuntza por adaptar su funcionamiento a las nuevas coordenadas tecnológicas queda patente no sólo en sus proyectos futuros, sino también, como la precedente enumeración evidencia, en sus actuales realizaciones.

## El-ko kideen liburuak

**"La vida arrantzale en Santurtzi" Juan Antonio Rubio-Ardanaz.**



Bizitza funtsean itsas lanaren mende ematen duten Santurtziko gizonak eta emakumeak dira ikerketa honen aztergaia, lan hau gizarte antropologiaren alorrean kokatzen dela. Gaur arte itsasbazterreko arrantzaleak euskal kulturaren eremu tradizional batean sartu ohi ziren. Obra honek gizarte agente gisa hartzen ditu eta, ohitura eta tradizio propioetan oinarritu baino areago, halakoen bizitza beren existentziaren antolaketa materialaren mende dagoela kontsideratuz, nagusiki arrantza sektorean indarrean dauden produkzio moldeekin erlazionaturik.

**"Tres arzobispos de Viana". Juan C. Labeaga, Eliseo Sáinz eta Pelayo Sáinz.**



Liburu honek hiru bianar famaturen bizitza eta obraren berri ematen du. Hirurok ospea ekarri zioten nafar hiriari geografia desberdin eta urrunetatik: Fray José Pérez de Lanciego, abade benedikatua Naxeran eta Mexikoko artzapezpikua; Ignacio Añoa y Busto, Iruñeko apezpikua eta Zaragozako artzapezpikua; Rafael Múzquiz y Aldunate, Gortean kargu garrantzitsuak izan zituena, Avilako apezpikua eta Santiago de Compostelako artzapezpikua.

CONFERENCIA

## El director de Le Monde Diplomatique analizará la sociedad de la información

"Sociedad de la información y pensamiento único" es el título de la conferencia que Ignacio Ramonet, director de Le Monde Diplomatique, pronunciará el próximo día 22 de enero en Bilbao. Organizada por la Sección de Medios de Comunicación de Eusko Ikaskuntza y la Universidad del País Vasco, la sesión tendrá lugar a las 19.30 horas en la Sala Enkarterri de la Cámara de Comercio, Industria y Navegación (Alameda de Rekalde, 50) y la asistencia será libre.

Ramonet, director del citado periódico mensual desde 1990, es autor de diversas publicaciones, la última de ellas -"Un mundo sin rumbo"- editada el pasado año. Sus análisis ofrecen una visión crítica de la sociedad contemporánea y en uno de sus últimos artículos afirma que "los pilares sobre los que descansaban las democracias modernas, el progreso y la cohesión social, han sido reemplazados por otros dos, la comunicación y el mercado, que les cambian su naturaleza".

Le Monde Diplomatique fue fundado en 1954 por el entonces director del diario Le Monde, con el objetivo de especializarse en información internacional. Tiene en la actualidad una tirada de 300.000 ejemplares en su edición francesa y cuenta, además, con dos ediciones en alemán, una en inglés, una en griego, una en italiano, una en árabe y otra en castellano. Según su director, Le Monde Diplomatique aborda la información internacional como "una contraprogramación, fuera del tono dominante".

ASMOZ TA JAKITEZ

**Argitaratzailea:** Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia. Tlfnoa.: (943) 310855. Faxa: (943) 213956. Internet: http://suse00.su.ehu.es. **Zuzendaria:** Josemari Velez de Mendizabal. **Zuzendari teknikoa:** Marta Guruziaga Reparaz. **Lege gordailua:** SS-1056/92. ISSN: 1133-9861. **Inprimategia:** Gertu (Oñati. Gipuzkoa). **Harpidetzak:** *Asmoz ta Jakitez* etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara: **Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia (Gipuzkoa).Tlfnoa. (943) 310855. Faxa: (943) 213956. E-mail: eisev@sk.ehu.es Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Arabako Bulegoa:** San Antonio, 41. 01005 Gasteiz. Tlfnoa.: (945) 231552. Faxa: (945) 148752. Ordutegia: 11.00-14.00. **Bizkaiko Bulegoa:** Maria Diaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbo. Tlfnoa.: (94) 4425287. Faxa: (94) 4414650. Ordutegia: 10.00-14.00. **Nafarroako Bulegoa:** Garcia Castañon, 2-6.ezk. 31002 Iruñea. Tlfnoa.: (948) 222105. Faxa: (948) 211737. Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Iparraldeko Bulegoa:** Baionako Sailaskotako Fakultatea. Tlfnoa. 07. 33.559529299. Faxa. 07.33.559310518. Ordutegia: 9.00-12.00.